

Aturriko euskararen kolorea, Lapurdiko misterioa

Norbaiti gure hizkera deskribatu beharko bagenio, denok genituzke gogoan zenbait elementu (hiztunaren adina, sexua, jatorria, hizketaren testuingurua, eta abar). Gugandik urrun edo aztertu gabe dauden hizkeren kasuan, ordea, hastapeneko irizpide fresko horiek galtzen omen dira, ahaztu egiten dira gudan betitik izan diren intuizioak, norbaitek lehenago ekarritakoari jarraituz, galbahetu gabe. Euskal Dialektologiaren *terra incognita* ez dira salbuespen izan.

ARGIaren gonbiteaz, plazaratzen ditugu EHUko doktorego tesi-proiektu baten aitzakiaz, 1999tik egiten dihardugun Aturriko euskararen azterketa dialektologikoaren ildo nagusiak.

KRISTINA ENCINAR



(1) Koldo Zuazoren sailkapenak (*Euskalkiak, herriaren lekukoak*, 2003), Bardoze Aturriko eremutik kanpo jartzen du.
 2. Bonaparteren mapa (*Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*). Ahurtin gaindiko ziri erdalduna ikusgai, aitzineko batasun baten ondorengoa ote?
 3. Aturri ibaia Aturriko herriak inguratzen: Hiriburu, Mugerre, Lehuntze, Urketa, Beskoitze, Bardoze, Gixune eta Samatze.

✓ **Edozein gizataldetan orografiak hiltzunei jarritako baldintzak.** Bardoze, adibidez, urrunago den herria da, eta tradizioz hizkuntza aldetik bereizten dela ematen du. Aturriko bideetan ere ibiliak gara. Malkartsuegia izan gabe, Lapurdiko ipar-ekialdeak baditu zango eta gurpilentzako erronka bihurriak. Garai batean baldintzak okerragoak ziren, ez zen traktorerik ez *yousik*, Beskoitzeko itzain ohoratuen animaliek lurrian *tripalaaino* sartzen zituzten zangoak, euri sasoiari.

✓ **Hiztuna vs. hizkera-eraginak.** Ipar Euskal Herriko bazter anitzetan bezala, hemen ere lau biztanle mota nagusi daude: herrian lan egiten duena, erretretan dena, herrikan kanpo lan egiten duena –herria atsedean hartzera datorrena– eta herrian etxe berria egiten duen kanpotarra (erdalduna, gehienbat). Leizarragak 1571n jadanik idatzi zuen pasarte egiaztatzen ari gara Aturri aldean: “Batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitate den”. Tradizioz, Lapurdiko ipar-eguzkialdeak aldi berean hainbat hizkeren eragina biltzen duela esan da. Zehatzago esanda, Aturriko euskara ez omen da erabat izan ez Lapurdiko ezta Nafarroa Beherekoa ere. Horregatik, hizkeron eragin hauek nolako banaketa duten interesatzen

✓ **GIZATALDE HONEN hartu-eman historikoak.** Goi Pirinioetatik Kantauri itsasorako bidean, Aturri ibaia Lapurdiko ipar-ekialdea ukitzen du, ingurune honetan hitz egiten den euskarari izena emanez –*ad hoc* bada ere, bertako euskaldunek ez dutelako beren mintzamoldearentzako izendapen esklusiborik, *Heskuaraz* hitz egiten dute–. Aturri aldeko herri gehien porturako ahoak ibaiaren bi aldean arteko merkataritzarako ezinbesteko garraioak izan dira –garran-

tzitsua izan zen Frantzia eta Espainia lotzeko lehen zubia, Ahurtin–. Arrantzeta eta merkataritzako jarduerak izan dira ibai bazterretan nagusi; barnerrago, nekazaritza –Pirinioetako artzainekin ere lotura handiak izan dituzte Aturriko euskaldunek–. Lapurdiko ipar-eguzkialdeko kokapen geografiko estrategikoari esker, Aturriko herriek inguruko jardueretan ere parte hartu dute, esaterako, XVII. mendeko Lapurdiko (Uztaritze, Hazparne) larrugintzan.

Herritarrek esanak

✓ **Beskoitzeko Plazeu etxean guk bildua 2006an.**

L'Adour?

Baionako ura, hura ebiltzen duu, eztuu Adour eundano ibili... Baionako ura, guk aitu 'uguna beti Baionako ura edo Ahurtiko ura...

Aturri...

Ez, ez, guk eztuu eundano ibili...

Hori duxu, Aturri...

aaa, bee izena Aturri 'uxu'?

Bai...

To, lehenbiziki aldia aitze' 'utala... Aturri... eta nunbeit Aturri euna edo zeeit nunbeit... diat ikusi... eundano ez pitakit ze' errangoo ziin hitz horrek... Aturia, Aturia, to!

✓ **Bardozeke euskara Euskalerriko Atlas Etnolinguitikoan.**

Eta hemen, laborariak, zure adineko gizon eta emazteek, hitz egiten dute eskuaraz?

Bai, ba, ba...hemen, guk eztu(u) erraiten anai-arrebak, anai-ahizpak; baxharra, egiaz erraiteko: anai-ahizpa. Bi ahizpa, bi anea; Bardotzek, eskuaaz, partikularra du: erdia nahas...

Ez da beraz lapurtarra?

Bien arte; xuberotarrek erran oi die: 'hi, hi lapurtarra hiz?'; lapurtarrek: 'hi, xuberotarra ai(z)?', ba bein arte eo hola... Ene haurrien, biziki eta gaitzitzen tzüzün, apezak eta Exkual Herritik: Bardozeke exkuaraz eta... irri iten tzuten".

zaigu –noraino lot daiteke, esaterako, Lafitteren Nafar-lapurterekin?–, herri, auzo zein hiztunen arteko dimentsioetan.

✓ **Aturriko berezko eredurik ote?**

Ez da euskaldun kopuruaren eroldarrik egiten, baina egiaztatzen ari garen bezala, bertako moldeaz nolabaiteko jarioetasunez hitz egiteko lagun gutxi geratzen da –gazteagoak dauden arren, gehienak 60-70 urte inguruko hiztunak dira–. Gainera, erabilpena gehienbat etxe barnera mugatzen da. Pedro de Yrizarrek 3.000 euskaldun zenbatu zituen 70eko hamarkadan, baina gure bertatikako oraingo datuen arabera, Hiriburun, Lehuntzen –Koldo Artolari zor dizkiogu Hiriburu eta Lehuntzeko azken euskaldunen hitzak– eta Ahurtin, esku bateko atzamarrekin zenbatu ahal dira, Urketan bi eskuak erabil daitezke, eta Mugerren, Beskoitzen eta Bardozen, batera agian ehunen bat hiztun aurki litezke. Nolanahi ere den, harritzekoa da nola biztanle hauek, Baionaren ondoan egon arren –Baio-

natik gero eta gertuago, orduan eta euskaldun gutxiago–, eutsi izan dioten euskarari. Adierazgarria da gu inguratu arte gaztarotik ia euskararik egon izan ez zuten lagun batzuei honelakoak entzutea: “Ez, ez, ‘iguzki’ ez... baduzu elhe bat... ‘ekheerri’, hoi da ene heskuara, ekheerri!”; “Ene heskuara duxu ‘hoi duxu’, pas ‘da’”. Azterketa dialektologiko honetan berezko Aturriko euskararik baden edo ez jakin nahi dugunez, hiztun adinduengana jotzearekin batera, 40 urte inguruko nahiz gaztetxoenen hizkuntza joerak ere aintzat hartzen ditugu, erreferentziazko ikuspegia orekatua izan dadin.

✓ **Tarteko hizkera euskalki-sailkapenean.** Aturriko euskarak euskalki-sailkapenean argi printza ekar dezakeela esan ohi da. Aturriko euskararekiko interesa, aztertu gabeko hizkera izatean gainera, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko hizkeren arteko *tarteko-hizkeratzat* hartzean datza, Amikuzetik Lapurdira zubi funtzioa eginez. Hauxe teoriarentzat ere aberasgarria da, hots, zubi-hiz-

keretan modu bizian azal omen daitezkeelako aldaketa eta banaketa linguistikoa. Hain zuzen ere, eremu txiki batean ezaugarri ezberdin asko topatzen badira, argiago ikusten omen ditugu hiztunaren jokabideak –esaterako, ondoko berbaldiarekiko harremanak–. Adibide onak ditugu Beskoitzeko xuketa alokutiboan (*nuxu* ‘naiz-nauzu’), edota Bardozeke euskararen *ii* bokalean, gainontzeko Aturriko herrietara hedatu ez omen diren ezaugarriak, tartean kilometro gutxi egon arren.

Hizkuntz-ezaugarrien bilketa bertatik

Ildo nagusi hauek guztiak, bide berean ezkontzen ditugu: Aturriko hizkuntza ezaugarriak. Horretarako, gure lehen urratsa izan da Euskal Dialektologiak Aturriko euskaraz esandako guztia biltzea eta aztertzea –aparteko tokia merezi du *Euskal Herriko Hizkeren Atlasaren* uztak–. Lekukotasun hauek baloratzen deserosoak dira, batetik, haien artean hamarkada askotako aldea dagoelako, eta bestetik, datu bakoitza jaso zelako modu eta biltzaile ezberdin batekin. Duela mende/hamarkada batzuetako eta gaurko metodo dialektologikoak oso gauza bi dira. Guk uste dugu hizkera honetara hurbiltzeko beharrezkoa dela bertan egonaldiak egitea; geure datuak, hain zuzen ere, Aturri aldean 2000. urtetik egiten ditugun egonaldien bidez biltzen ari gara –pazientziadun berriemaileei bihoazkie geure eskerrik beroenak–. Eta kontuan izanda inoiz ez dela Aturriko euskara xeheki eta modu bateratuan analizatu, oso pozik gaude metodo hau aukeratu izanaz, emaitzak biziki interesgarriak izaten ari dira-eta.

Zenbat onura gehiago izan ditzake Iparraldean orokortzen ari omen den *nafar-lapurtera* ereduaren aldan den herri-hizkera honen azterketak? Beskoitzekoa zen Leizarraga, Hiriburukoa Darrigol... beste ikuspuntu batetik ezagutu ahal izango al dugu euren lanetako euskara? ■

Babeslea: Tolosako Udala



Tolosako
Euskara Zerbitzua

Egunero zure "euskara" esanetara

Plaza Zaharra 6A • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 697 453
euskara@tolosakoudala.net